



***Bertikalekin (With Verticals)*, 1946**

Kotoi gorria liho gainean

154,9 x 118,1 cm

The Josef and Anni Albers Foundation, Bethany, Connecticut

"Nire sinesmen, sentimendu eta ideiak artearen norabidean dagoen beste esparru batera eramaten saiatu nintzen, ehun piktorikoetara. Hor, nik daukat formaren, marraren, kolorearen, proportzioen eta azalaren ardura." Anni Albers, 1965 [1]

Anni Albers (Berlin, 1899–Orange, Connecticut, 1994) 1922. urtean matrikulatu zen **Bauhausean**. Eskola iraultzaile hartan, arte-, artisautza-, arkitektura- edo industria-praktikak modu transbertsalean jorratzen ziren, industriara, artisautzara edo artera eramanez zitezkeen formen diseinu edo ekoizpenaren bitartez. Eskolako ehun-tailerrean, Gunta Stölzl margolari eta ehuleak arte modernoko kontzeptuak ehunen esparruan nola aplikatu irakatsi zion Albersi, eta baita ohikoak ez ziren materialekin esperimentatzen ere, hari metalikoak edo zelofana kasu. Ikaskuntza horiek bultzatuta, ehun berritzaileak garatzeari ekin zion Albersek, etxeko esparruan aldi berean arkitekturari, dekorazioari eta arteari dagozkion funtzioak beteko zituzten oihalak, hain zuzen.[2] Bauhaus eskolako urteetan zehar eskuzko ehundegien tekniken inguruan egindako ikerketari esker, Albers eragin handiko pertsonaia bilakatu zen ikasle eta irakasleen artean.

1930eko hamarkadaren hasieran, nazionalsozialismoak Alemanian izandako gorakadaren ondorioz, eskolaren etorkizunarekiko kezka agertu zuten Bauhaus korronteko artista eta irakasleek. 1933an, nazien alderdiak itxi egin zuen eskola. Anni eta Josef senar-emazteek Philip Johnson arkitektoaren gonbita onartu eta Black Mountain College eskolako irakasle izatera pasa ziren; Ipar Carolinan dagoen eskola libre eta esperimental berria zen hura. Beren presentzia funtsezkoa izan zen eskola herrialdeko aurreratuenetakoen artean onartzeko. Black Mountain zentroko eskola eta tailerretan, ikuskera esperimental eta indibidualizatu baten bitartez irakatsi zuen Albersek, ezagutzak lortzeko esperientzia sentzorialak eta ohikoak ez diren materialen esperimentazioa oinarritzat hartuta. Gainera, **ehun-patroiak** irakurri eta idazten ikasi

zuten ikasleek; korapiloak egiten; **irazkia** eta **bilbea** kalkulatzeko; ehungailua janzten; koloreen arteko harremanak aztertzen; eta, azkenik, ehuntzen.

Ipar Carolinan igarotako urteetan, Anni eta Josef Albersek zenbait bidaia egin zituzten Mexiko eta Hego Amerikara. Bertan, merkatu indigenak bisitatu zituen Albersek; bere diseinuetako batzuk inspiratu, eta bere lanean eragina izan zuten ehun eta objektuak eskuratu zituen horietan. Gainera, ehunak lantzeko teknika autoktonoen inguruko ezagutza jaso zituen tokiko emakumeengandik. Albersen ustetan, landa-eremu horietan egiten den eskuzko lana oso sofistikatu da formari dagokionean, eta duen eragin ekonomikoa funtsezkoa da komunitateentzako. Hala ere, ehungailu industrialek bitartez egindako ekoizpen mekanikoak gizarte moderno baten beharrak hobeto asetzen dituela uste zuen artistak. Behin Black Mountain College eskolara itzulita, eta bere bidaiak inspiraziotzat hartuta, pintura-oihal ugari eta formatu handiko zenbait obra gauzatu zituen Albersek 1936 eta 1946 urteen artean, *Monte Albán* (1936), *Eskritura zaharra* (1936) eta *Bertikalekin* (1946) lanak kasu.

Bertikalekin (1946) bere bidaien ondoren egindako formatu handiko azken lana da. Lan horretan kolore-sorta bero eta mugatua erabili zuen; zuntz gorri eta urre-kolorekoak aukeratu zituen ehunaren bilbea osatzeko, eta zuntz beltzak irazki bertikal eta etenerako. Lerro perpendikularren eta paraleloen arteko interakzioak, bilbearen eta irazkiaren manipulazioari esker sortuak, "orkestrazioa" (artistak esatea gustuko zuen gisa) edo harien planifikazio xehatua erakusten du. *Bertikalekin* (1946) bere ehun piktoreko garrantzitsuenen artean dago. Termino horrekin, pinturan koadroak duen estatus berbera eman zion ehungintza lanari: estetiko baina ez den esanahi eta intentzioa duen objektu bat, erabilerarako helbururik izango ez duena.[3]

Black Mountain College eskolan, irakasle, ikasle eta artista gonbidatuek campuseko komunitate-bizitzan parte hartzen zuten, ingurune erlaxatu batean; horri esker, elkarlan eta artelan kolektiboak sortu ziren. Bertan ezagutu zuten elkar Anni Albersek eta Alex Reed-ek, bigarrena ikasle zela; Oaxacara (Mexiko) batera egindako bidai baten ondoren ekin zioten elkarlanari. Bertan deskubritu zituzten Monte Albaneko kolonaurreko bitxiak, harribitxi, karei eta arroka- eta urre-kristalak bezalako material desberdinen konbinaziotik sortuak. Ikusitakoa inspirazio hartuta, bitxi-bilduma bat sortu zuten Reed eta Albersek burdindegiko artikulak erabilita: paperezko klipak, urkilak, zirindolak, azkoinak edo hustubideetako iragazkiak, besteak beste. Etxean erabiltzen diren objektu horiekin, apaingarriaren balioa birdefinitzen duen bitxi-bilduma ekoitzi zuten artistek, luxuaren nozio konbentzionalaren kontra.

EZTABAIDAGAIK

Behatu arretaz Anni Albersen *Bertikalekin* (1946) lana. Har ezazue tarte bat xehetasun guztiei erreparatzeko. Zer hautematen duzue? Ereduren bat bereiz dezakezue? Deskribatu Albersek lan honetan kolorea nola erabili duen. Sentimendu edo sententzio konkreturen bat sorrazten dizue?

Albersek Latinoamerikan zenbait hilabete pasa ondoren gauzatu zuen lan hau. Obra hau paisaia batean inspiratua balego, nola imajinatzen duzue paisaia hori? Izan zareten leku jakinen bat ekartzen dizue gogora?

Bertikalekin (1946) artistak "ehun piktoreko" deitu zituen lehen lanetako bat. Zergatik uste duzue jarri ziela izen hori? Ehunek pintura baten edo eskultura baten balio artistiko berbera izan dezaketela uste duzue? Arrazoitu zuen erantzuna.

Behatu orain Reed eta Albersek egindako bitxiak. Obra egiteko erabilitako objektuen batzuk ezagutzen dituzue? Non aurki daitezke artikuluko horiek? Zein uste duzue izan zela publikoaren erantzuna teknika horiekin egindako lepokoak ikusterakoan?

Albers eta Reed-ek "luxuaren aurkako bitxiak" izena jarri zieten bilduma honetako lanei. Zergatik uste duzue jarri zietela izen hori? Zuen ustez, zer lotura dago pieza baten balioaren eta hura egiteko baliatutako materialaren artean? Jantziko zenukete obra hauetako bateren bat?

Albersen ehunetako asko modu industrialean burutzen dira. Uste duzue garrantzitsua dela artelanak bakarrik izatea edo eskuz eginda egotea? Zergatik? Uste duzue funtzio erabilgarriak balio artistikoa ken diezaiokeela piezari? Arrazoitu zuen erantzuna.

JARDUERA

Sortu zure ehungailu propioa

1) Moztu zapata-kaxa baten tapa, laukizuzen handi bat (taparen goiko alde) eta lau tira (taparen alboak) lortzeko moduan.

2) Marraztu zenbait marka laukizuzen handiaren bi ertz estuenetan, beren artean zentimetro erdia utziz. Bi aldeetako markak lerrokaturik daudela ziurtatu.

3) Moztu marketako bakoitza zentimetro erdiko sakoneran.

4) Itsatsi solte kartoiaren gainean tapatik gelditu zaizkizun bi alde laburrenak, ebakitako erlaitzen gainean justu, agerian geratzeko bide emanaz.

5) Egin korapilo bat hari baten muturretako batean eta sartu lehen erlaitzeko atzeko aldean. Pasatu haria ehungailuaren aurreko alde osotik eta sartu erlaitz paraleloan.

6) Segi haria eraman eta ekartzen, erlaitz guztiak osatu arte; bukatutakoan, egin korapilo bat. Prest dago zure ehungailua!

Orain, hasi ehuntzen! Lehenik eta behin, korapilatu artile bat lehen hariarekin.

Ondoren, sartu artilea aldizka harien gainetik eta azpitik. Lerro bat bukatzerakoan, pasatu artilea alderantziz; hau da, aurreko lerroan artilea harien gainetik pasa baduzu, pasa oraingoan azpitik. Orratz bat erabil dezakezu eta nahi adina aldiz alda dezakezu artilearen kolorea. Lerro guztiak artilez bete ondoren, itxi ehungailua azken harian korapilo bat eginez.

Honako webgunean ere irakur ditzakezu argibideak ingelesez:

<http://www.theweavingloom.com/how-to-make-a-cardboard-loom/>

Bitxiak

Bilatu etxean objektu txiki desberdinak, metalezkoak ahal izanez gero: klipak, txintxetak, urkilak, zirindolak, azkoinak eta torlojuak, adibidez, eta eraman itzazu ikasgelara.

Albers eta Reed-ek burdindegia batean aurki daitezkeen objektuak erabili ohi zituzten beren bitxiak osatzeko. Bildu zuen etxeetako materiala, eta baita ohiko beste leku batzuetakoa ere. Aukeratu ehundura, forma eta kolore desberdinak dauzkaten objektu txikiak. Esperimentatu objektu, zinta eta kolorezko hariekin, zuen bitxi propioak sortzeko. Kola ere erabil dezakezue, bilduma sortzerako orduan objektuak elkarren artean itsasteko. Bitxiak sortzeko (idunekoa, eskumuturrekoa, belarritakoa, etab.) objektuak beren artean lotu baino lehen, aurrez diseina ditzakezue, ikuspuntu desberdinetatik paper batean marratuz, edo modela daitekeen hiru dimentsiotako materialen bat erabil dezakezue (plastilina, adibidez), gero lortuko dituzuen efektuak aurrez ikusi ahal izateko.

HIZTEGIA

Bauhaus: diseinu-, arte- eta arkitektura-eskola iraultzailea, Walter Gropius arkitektoak 1919. urtean Weimar hirian (Alemania) sortua. Eskolako programa *Gestaltung* izeneko ikuskera orokor batetik abiatuta jorratzen zen; hau da, industriara, artisautzara eta artera eraman zitezkeen formen diseinua edo ekoizpena. Bauhaus eskolako objektu utopikoek eguneroko bizitza-mailaren hobekuntza barne hartzen dute, estetika moderno eta unibertsal bati jarraiki doazen eraikin, diseinu-objektu eta artelanen ekoizpenaren bitartez.

Ehun-patroia: diseinua, tamaina, ehoziri edo orratzak eta ehuntzeko beharrezkoak diren puntuak bisualki deskribatzeko mapa gisa funtzionatzen duen gida.

Bilbea: hari paraleloez osatutako multzoa, irazkiarekiko zeharkakoa, ehun bat osatzeko erabilia.

Irazkia: marko edo ehungailu batean tentsioan mantentzen den luzetarako harien multzoa, irazkiaren gainetik eta azpitik sartutako hariak desberdintzeko, "bilbe", "kontraharia" edo "betegarri" izena jasotzen duena.

ESTEKAK

<http://www.tate.org.uk/whats-on/tate-modern/exhibition/anni-albers>

<http://www.albersfoundation.org/>

<https://black-mountain-research.com/2015/03/25/rehabilitating-materials-hardware-jewelry-by-alex-reed-and-anni-albers/>

OHARRAK

[1] Albers, Anni, "A Conversation With Anni Albers", Craft Horizons, 1965, 7. or.

[2] <http://www.tate.org.uk/whats-on/tate-modern/exhibition/anni-albers>

[3] Danilowitz, Brenda; Anni Albers; Paulina Brugnoli; Soledad Hoces de la Guardia; Jessica Csoma; Kiki Gilderhus; Josef Albers; Jenny Anger; Hugo Palmarola Sagredo, *Anni y Josef Albers. Viajes por Latinoamérica*, Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, 2006, 15. orr.